

Psycho 1998

kolorea du, baina ez dago kolorerik




▲ Anne Heche aktorearen lanak kritika zorrotzak jaso ditu Estatu Batuetan.

Gus Van Sant-ek Alfred Hitchcocken *Psycho* film mitikoa berregin du. La planoz plano egindako bertsio horretan aldaketa gutxi dago. Dutzaren sekuentzia bere horretan utzi du zuzendariak

■ iñaki lazcano

Gus Van Sant-en *Psycho* ez da Hitchcock-en *Psycho* filmaren *remake* bat, erreplika zehatz bat baizik. Van Sant-ek argi utzi nahi izan du hori hasierahasieratik. Hitchcock-en *Psycho*-ren erreplika bat egitea aspaldiko ametsa zuen; *Drugstore Cowboy* eta *My Own Private Idaho* film independenteak egiten zituen sasoiko erokeria bat. Garai hartan horrelakorik egitea ezinezkoa zitzaion. *Good Will Hunting* filmaren arrakastaren ostean, ordea, arras aldatu dira gauzak. Kritikari gehienek zinema komertzialaren aurrean belaunikatu den traidoretzat duten bitartean, duela urte batzuk harengatik dolar ziztrin bat ere jarriko ez zuketekoizleek atak zabaldu dizkiote. Uni-

versal Pictures-eko exekutiboek Van Sant-en proiektuan sinetsi dute. Erokeria gauzatu da. Van Sant-ek planoz plano berregin du *Psycho*. Elkarrizketetan ere ez dago alde nabarmenik. Hitchcock-en filmean gidoigile gisa aritu zen Joseph Stefano-k beharrezkoak iruditu zaizkion aldaketak soilik egin baititu Van Sant-en bertsioan. Bernard Herrmann-en musika berezia (egokituta baina) filmaren erakargarrietako bat da oraindik. Horretaz gain, Van Sant-en ber-



Filma: *Psycho*. Zuzendaria: Gus Van Sant. Gidoia: Joseph Stefano, Robert Bloch-en eleberrira oinarri izanik. Musika: Bernard Herrmann (Danny Elfman-ek egokitua). Muntaiak: Amy Duddleston. Aktoreak: Vince Vaughn (Norman Bates), Anne Heche (Marion Crane), Julianne Moore (Lila Crane), William H. Macy (Milton Arbogast), Viggo Mortensen (Sam Loomis). EEBB, 1998.

da. Hitchcock-ek iradokitzen zuena modu gordinagoan azaltzen du Van Sant-ek.

tsioko aktoreek jatorrizko filmaren aktoreen interpretazioak izan zituzten ardatz euren pertsonaiak lantzeko orduan. Izan ere, filmaketa osoan zehar Alfred Hitchcock-en *Psycho* filma DVDn aztertzeke parada izan baitzuten. Hala ere, Van Sant-en filmak berezko ezaugarri batzuk ere baditu.

Van Sant-en ekarpenak: kolorea eta sexu eszena esplizituagoak

Hitchcock-ek zuri-beltzez filmatu zuen *Psycho*. Koloretan filma zezakeen arren, zuri-beltza aukeratu zuen istorioari hobeto zetorkiolarakoan. Van Sant-ek, berriz, kolorearen aldeko hautua egin du bere bertsioan. *Scream* eta *I Know What You Did Last Summer* beldurrezko filmen zale diren gazteei begira hartutako erabaki bat dela dirudi. Alfred Hitchcock-en *Psycho* mirestu ez duen belaunaldi berriari egindako kei-

nua. Van Sant-ek Norman Bates-en gaixotasun psikiokoaren sexu kutsua ere areagotu egin du. Marion Crane biluzten ari den bitartean hari begira dagoen Norman Bates masturbatzen deneko eszena horren lekuko

komedia korala da. Gaur zortzi, berriz, Zornotzan eskainiko dute antzezlanak. Hil amaieran, Gasteizen eta Elorrion izanen dira.

Maskaradak 'Izarretako Bitakora' dakarkigu. Maskarada antzerki taldeak *Izarretako Bitakora* obra taularatzen hasiko da hil honetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Antzezlanak Stanislaw Lemen ipuinak ditu oinarrian. Gidoia Mikel Martinez aktoreak —berak egiten du bakarriketa—, Jokin Oregik eta Carlos Panerak —zuzendari lanean aritu da bera— atondu dute. Joserra Utretxek egokitu du euskarara gidoigileen lana. Ion Tichy da istorioko protagonista. Espazioko pilotu horrek galaxiako mutur ezezagun batean arazoak izan omen dituzten lurtar misiolariak Lurrera itzultzea du helburu. Iragan urtea azken arrasetan zela egin zen antzezlanaren aurrestreinaldia, Bakion.

Medem eta Lucía.

Lucía izanen da Julio Medem zuzendariaren bosgarren filma. Une hauean gidoian ari da lanean eta udaberri aldera hasi nahi luke filmatzen. Horretan ere Julio Medemen filmetan ohikoak diren aktoreek beteko dituzte rolik garrantzitsuenak. Horien artean Emma Suarez, Carmelo Gomez, Karrera Elejalde eta Najwa Nimri nabarmendu ditzakegu.



Julio Medem zinema zuzendaria. ▼



ANTZERKIA

Desperrados ■ (Ados). Ostiralean, larunbatean eta igandean, Donostiako Antzoki Zaharrean, 20:00etan.

Los sueños ■ (Erik & The Poet Band). Larunbatean, Bilboko Mina Espazioan, 20:00etan.

La vuelta al mundo en ochenta días ■ (Markeliñe). Larunbatean, Santurtziko Serantes KAN, 17:00etan.

Dios ■ (Xautondo). Igandean, Iruñeko Gaiarre antzokian, 20:00etan.

Bodas de sangre ■ Datorren asteazkenetik igandera, Bilboko Arriaga antzokian, 20:00etan.

Moliere-Dandin ■ (EHUko Antzerki Tailerra). Asteazkenean, Leioako Unibertsitatean, 12:00etan.

DANTZA.

Casse + Noisette ■ (Miarrizteko Baleta). Gaur eta bihar, Miarrizteko Gare du Midin, 14:30etan.

ZINEMA

No va más ■ (Claude Chabrol). Gaur, Elorrioko Arriola Kultur Aretoan, 20:15etan.

La vergüenza ■ (Ingmar Bergman). Gaur, Gasteizko Luis de Ajuria aretoan, 19:30etan.

Marius et Jeannette ■ (Robert Guediguian). Bihar, Azkoitiko Bazartxo aretoan, 22:00etan.

La anguila ■ (Shoei Imamura). Bihar, Getxo Antzokian, 22:00etan.

Al caer el sol ■ (Robert Benton). Bihar, Legazpiko kultur etxean, 22:15etan.

Wallace & Gromit ■ (Aardman animations). Bihar, Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean, 22:00etan.

El harpa de hierba ■ (Charles Matthau). Astelehenean, Donostiko Kutxa aretoan, 19:30etan.

Los asesinos de la luna de miel ■ (Martin Scorsese). Asteartean, Bilboko F.A.S. zine klubean, 19:45etan.

Gattaca ■ (Andrew Niccol). Asteazkenean, Getxo Antzokian, 20:00etan.

La emperatriz Yang Kwei Fei ■ (Kenji Mizoguchi). Asteazkenean, Donostiko Antzoki Zaharrean, 20:15etan.